



## BIDAIK KUDEATZEKO ZERBITZUA – Bikaintasun maila

Prozedura irekiaren bidez kontratatzeko eta lehiaketaren bidez esleitzeko ingurumen-irizpideak

### 1. Kontratuaren xedea eta zehaztapenak

#### 1.1. Kontratuaren xedea

Atal honetan, garrantzitsua da aipatzea ingurumen-alderdiak kontuan hartuko direla:

##### 1. Koadroa

Bidaiak kudeatzeko zerbitzuaren kontratazioa (pertsonek eramatea garraiobide ezberdinetan –hegazkinez, trenez, autobusez edo autoz– eta ostatua) ingurumen irizpideen arabera izango da.

#### 1.2. Esleipen-irizpideetan bete beharreko zehaztapen teknikoak eta zehaztapen baloragarriak

Bidaien fitxetan aipatu bezala, bidaiak kudeatzeko zerbitzuak esparru-kontratu itxura hartzen du. Kasu bakoitzeko arduraduna ezberdina denez, lizitazioak iraun artean ezin izango zaio enpresari eskatu administrazioak behar izango dituen zerbitzuen ingurumen baldintzak zehaztea. Izan ere, ez dago martxan jarri aurretik informazio hori lortzerik. Beraz, ingurumen irizpideak ez dira zehaztapen gisa definitu (haientzat frogagiriak aurkeztu behar izaten dira), enpresa esleipendunak kontratuaren indarraldian gauzatu beharreko ingurumen baldintza gisa baizik.

### 2. Gauzatze-irizpideak

#### 2.1. Bidaiak erreserbatzeko baldintzak

Bi garraiobide ezberdinetan (trena/hegazkina edo trena/ibilgailua) eginiko joan-etorriaren denbora aldea ez bada 2 orduetik gorakoa, administrazioak nahitaez trenaren aukera erabiltzeko konpromiso orokorra ezar dezake erakunde osoan, bai barneko instrukzioaren bitartez bai lehiaketan esleipendunak trenaren aukera bakarrik aurkez dezan eskatuta.

Nolanahi ere, erabaki hori maila guztietan ezarriko da (bai kargu politikoei bai kudeatzaileei, baita administrazioko gainerako langileei ere). Gainera, batzuetan, arrazoi pertsonalak direla-eta, eta ordutegien arabera, ezin izango da garraiobide bat besteagatik ordezkatu; hori ez da irizpideetan bildu, nahiz eta aukerarik egokiena izango zatekeen.

## 2. Koadroa

- Bidaiarik antolatzea eskatzen denetan, enpresa esleipendunak aukera eskuragarriak aztertu eta eskaera egileari aukera hobereenen berri eman beharko dio.
- Era berean, 3 ordu baino gutxiagoko hegaldietan, esleipendunak bidaia bera trenez egiteko dauden aukerak aztertu eta jakinaraziko ditu.
- Dena dela, alternatiba bakoitzean aurkeztu beharreko dokumentazioa honako hau izango da:
  - Garraiobidea (hegazkina, trena, autobusa...) eta prezioa guztira.
  - Bidaiaren iraupena (hegalaldien kasuan, hegazkineratze aurreko itxaronaldia eta aireportutik helmugako hirirainoko tartea ere barnean hartuta) eta gailu aldaketak.
  - Bidaian sortutako CO<sub>2</sub> isuriak (joan-etorrikoak). Isuriak kalkulatzeko honako erreferentzia aldagaiak baliatuko dira:

GARRAIOBIDEA	CO <sub>2</sub> ISURI FAKTOREA
Gasolinazko <b>autoa</b>	0,197 kg CO <sub>2</sub> /km eta ibilgailuko
Gasoliozko <b>autoa</b>	0,190 kg CO <sub>2</sub> /km eta ibilgailuko
<b>Autobusa</b>	0,065 kg CO <sub>2</sub> /km eta bidaiariko
<b>Trena</b>	0,050 kg CO <sub>2</sub> /km eta bidaiariko
<b>Hegazkina</b>	
- Ibilbide laburretan (<300 km)	0,510 kg CO <sub>2</sub> /km eta bidaiariko
- Ibilbide ertainetan (300-750 km)	0,400 kg CO <sub>2</sub> /km eta bidaiariko
- Ibilbide luzeetan (>750 km)	0,320 kg CO <sub>2</sub> /km eta bidaiariko

- Ordutegi arrazoiak medio, ekitaldiaren egun berean ez badago hegazkin edota trenik eskuratzeko modurik eta, ondorioz, beharrezkoa bada inon ostatu hartzea (ekitaldiaren aurretik zein ondoren), ohiko ostatuez gain (hotelak, ostatuak, eta abar) balizko ohe-bagoien berri ere eman beharko da.

## 2.2. Ostatua erreserbatzeko baldintzak

### 3. Koadroa

- Ostatu erreserba eskatzen denetan, esleipendunak, ohe-bagoiez gain, garraio publikoarekin ongi konektatuta daudenak eta/edo jomugatik edo ekitaldia izango den tokitik gertu daudenak lehenetsiko ditu.
- Udalerrian ingurumen kudeaketako jardunbide egokiak dituzten alojamenduak badaude, ingurumen kudeaketako sistema baten bidez egiaztagarriak (EMAS, ISO 14001 edo baliokideak), aurkezturiko alternatibak, bakarra bada ere, establezimendu mota horretakoak izango dira.
- Enpresak eskaera egileari aukera guztien berri eman beharko dio eta honako hau zehaztuko dio:
  - Prezioa (ostatu-gau bakoitzeko eta gosariarena).
  - Jomugako geltokitik ekitaldia izango den lekuraino oinez edo garraio publikoaren bidez joateko dauden aukerak.
  - Ingurumena kudeatzeko politika eta jardunbide egokiak jarraitzen direla egiaztatzen duen ingurumena kudeatzeko sistemaren ziurtagiria edota agiri baliokideren bat

## 2.3. Autoak alokatzeko baldintzak

Oro har, ibilgailuak alokatzeko irizpideek CO<sub>2</sub> isurketak eta beste errekontza gasen isurketak hartuko dituzte kontuan. Gasolinaz hornitzeko arazorik ez duten joan-etorri laburretan, ibilgailuek motor edo erregai alternatiboekin funtziona dezaten eska daitezke (elektrikoak, hibridoak, eta abar). Nolanahi ere, hori joan-etorri jakin bakoitzaren araberakoa izango denez, ez da zerbitzuaren baldintza gisa sartzen, nahiz eta kasu zehaztuetan eskatu ahal izango den.

### 4. Koadroa

- Auto-alokairuen eskaeren kasuetan, esleipendunak eskaintzaren berri (bi aukera gutxienez) emango dio eskaera egileari.
- Aurkeztu beharreko dokumentazioan, aukera bakoitzarentzat, honako informazio hau emango da:

MARKA, MODELOA ETA MATRIKULA ZENBAKIA	BATEZ BESTEKO CO <sub>2</sub> ISURIAK (G/KM)	ERAGINKORTASUN ENERGETIKOA	EURO ESTANDARRA	PREZIOA ETA BALDINTZAK
		A		
		A		

- Aurkezten diren aukera guztiek izan beharko dute energiaren efizientzia-sailkapen bat, A kategoriakoa eta CO2 isurketak ez dira inoiz 140 g/km-tik gorakoak izango. Ibilgailuaren kategoria eta isurien datuak jakiteko ekoizlearengana zein banatzailearengana joko da eta/edo web orri honetara: <http://coches.idae.es/>.

## 2.4. Autobusak alokatzeko baldintzak

Autoekin gertatzen den moduan, autobusak alokatzeko eta gasolinaz hornitzeko arazorik ez duten joan-etorri laburretan, ibilgailuek motor edo erregai alternatiboekin funtziona dezaten eska daiteke (elektrikoak, hibridoak, gasezkoak, hidrogenozkoak, eta abar).

Nolanahi ere, hori joan-etorri jakin bakoitzaren arabera izango denez, ez da zerbitzuaren baldintza gisa sartzen, nahiz eta kasu zehatzetan eskatu ahal izango den.

## 5. Koadroa

- Autobus-alkairuen eskaeren kasuetan, EURO V estandarrak (2008. urteaz geroko ibilgailuetan) edo ondorengoek agindutako gas isuri mailak betetzen dituztenak izango dira.
- Esleipendunak honako informazioa helaraziko dio eskaera egileari:

MARKA, MODELOA ETA MATRIKULA ZENBAKIA	EURO ESTANDARRA	ZARATA ISURIAK DB(A)	PREZIOA ETA BALDINTZAK

- Gainera, gidari esleipendunek gidatzeko modu eraginkorrei buruzko prestakuntza jaso beharko dute aurretik.

## 2.5. Zerbitzuaren beste baldintza batzuk

## 6. Koadroa

### Dokumentazioa

- Esleipendunaren eta eskaera egilearen arteko informazio trukea posta elektronikoz bidez egingo da paper kontsumoa murrizteko. Dena dela, beharrezkoak diren inprimakietan paper birziklatua erabiliko da (kupoi txarteletan salbu).

**Ingurumen txostenak**

- Esleipendunak urtero aurkeztu beharko duen txostenean honakoak azalduko ditu:
  - Urtean egindako bidaiak guztira.
  - Garraiobideen erabilera ehunekoak, motaren eta norakoaren arabera (nazioartekoak, Europa barrukoak, estatu barrukoak edota EAE barrukoak).
  - Egindako distantzia eta metatutako CO<sub>2</sub> isuriak guztira, baita garraiobide bakoitzean eginiko distantzia eta bakoitzari dagozkion CO<sub>2</sub> isuriak ere

**Hondakinen kudeaketa**

- Esleipendunak bere bulegoetako hondakinen sailkapen selektiboa egiteko konpromisoa hartu beharko du (papera/kartoia, beira eta ontziak) [egokitu egin beharko da ezarritako udal bilketa sistemaren arabera], baita haiek behar bezala entregatzekoa ere, udal zerbitzuek ezarritako hiri bilketako sistemaren arabera.
- [Udalerriak Garbigunea badu] Bere jardueran sortzen dituen hondakin arriskutsu guztiak sailkatzeko (pilak, fluoreszenteak...) eta haiek udal Garbigunera eramateko konpromisoa hartuko du halaber.